

4/2026 Irizpena, otsailaren 2koa Nafarroako Foru Administrazioaren ondare-erantzukizuna osasun-laguntza batean.

Eskatzailea: Osasun Departamentua

Txostengilea: Rafael Lara González

Interesa: Erreklamatzeko eskubidearen preskripzioa: epearen hasierako eguna zehaztea. *Lex artisa* ez betetzea eta kalte-ordaina kuantifikatzea.

Irizpen honen xedea da O-NOZeko osasun-zerbitzuen funtzionamenduak eragindako ustezko kalte-galerengatiko ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat. Erreklamaziogileek 2024ko azaroan aurkeztu zuten erreklamazioa, bai beren izenean eta eskubidearen arabera, bai semearen izenean, erditzean emandako osasun-laguntzaren ondorioz semeak jasandako kalteengatik.

Kontseiluak aztertutako gai garrantzitsuenetakoa bat da zehaztea zer egunetan hasten den erreklamatzeko eskubidearen preskripzio-epea; izan ere, Administrazioaren ebazpen-proposamenak ezetsi egiten zuen erreklamazioa, epez kanpo aurkeztu zela iritzita. Proposamen horren arabera, erreklamatzeko epea (urtebete) preskribatu egin da, uste baita adingabeak jasandako kaltea iraunkorra dela eta 2021eko azaroko ospitaleko altan edo, beranduenez, 2022ko uztailan zehaztu zela. Erreklamatzaileak, aldiz, dio kaltea ebolutiboa izan zela eta ezin izan zela benetako irismena ezagutu garuneko paralisiaren diagnostiko irmoa 2023ko azaroan egin zen arte.

Nafarroako Kontseilua ez dago ados Administrazioarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 67.1 artikulua kontuan hartuta; izan ere, lesio fisikoak direnez, sekuelen norainokoa zehazten direnean hasten da epea. Uste du ezagutza zentzudun hori ez zela egon, hain zuzen ere, Neurologia Pediatrikoko Zerbitzuaren kanpo-kontsultaren txosten klinikoan jasotako «haurren garun-paralisi distonikoa» diagnostikatu zen arte (txosten hori 2023ko azaroaren 16an eman zen). Horregatik, ondorioztatu du 2024ko azaroan aurkeztutako erreklamazioa garaiz egin zela eta ez dagoela preskribatuta.

Erreklamazioaren bidezketasunari dagokionez, Kontseilu honen doktrina errepikatua da Administrazioaren ondare-erantzukizunak izaera objektiboa duela. Baina osasun-alorraz ari garela, erantzukizun objektibo horrek ez du administrazioa emaitzen aseguratzailerik unibertsal bihurtzen. Funtsezko irizpidea *lex artisa* betetzea da (protokoloak, eskura dauden

bitarteko guztien aplikazioa edo sendatzeko medikuntzaren eta asebetetzeko medikuntzaren arteko bereizketa), eta parametro gisa balio du jarduketa medikoa zientziaren egoeraren arabera zuzena izan zen baloratzeko.

Osasun-langileen betebeharra bitartekoena da, eta ez emaitzena: teknika egokiak behar bezalako arduraz aplikatu behar dituzte, sendatzea bermatu gabe. Erantzukizuna bakarrik egonen da, kaltea praxi txar baten edo *lex artisa* haustearen ondorio bada, ez kontrako emaitza baten sortze hutsagatik.

Kasu honetan, espedientean jasotako irizpenak eta txostenak aztertu ondoren, Kontseiluak ondorioztatu du osasun-langileek erditzean izandako jarduketa ez zela bat etorri *lex artis*arekin, eta, beraz, adingabeak eta haren gurasoek ez zeukatela jasan zituzten kalteak jasateko betebeharr juridikorik. Bere ustez, kausalitate-harremana dago osasun-langileen jarduketaren eta eragindako kalteen artean. Hori dela eta, Foru Komunitateko kontsulta-organo nagusiaren ustez, bidezkoa da erreklamazioa baiestea eta dagokion kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztea.